

Jeanne Marie Malharin

Maite IRAZOQUI

Eskola girixtinoen zuzendari izanez galdegin daudate Janamari Malharin-ez mintzatzea. Gogotik eginen dut hori, baina erran behar dut Malharin anderea ez dutala bere erakasle karguan ezagutu. Eza-gutu dutenen lekukotasunekin landu dutala ene mintzaldia; beraz barkatu xuxen-kontra edo gaiziki erraiten baditut gauza batzu. Bertalde, Daniel Landart-ek liburu egokia egin du eta hartan ezagutzen da Janamariren bizia. Laguntza horiek guzietan presentatuko dauzuet zer emazte, nolako andereño, nolako girixtino izan den Janamari Malharin.

Lehen lehenik, lekukotasunen arabera, eskola girixtinoetan zen Mademoiselle Malharin. Ez zuten erraiten Janamari, ez eta Malharin anderea, baina bai Mademoiselle Malharin. Jadanik hori erranez, ikusten da ez zela nor nahi, ez zela denak bezala, zeren aski errex da, eta jendea ez da hortan lotsatzen, Mademoiselle erranez mutxurdina zela pentsatzea, edo euskaraz bai eta frantsesez erraiten den: "neska zaharra" edo "vieille fille", hitz aski itsusiak. Janamarirentzat, Mademoiselle hori sekulako errespetuz betea zen, beldur pixka batekin ere.

Bera jendeari hurbil zen, baina ez zuen nor nahi uzten hari hurbiltzera. Emazte ederra zen, beti ongi emana, ongi beztitua eta ileak bilduak motto pollit batean. Sekulako itxura bazuen, eta bere-nazko nagusitasuna bazuen. Etxeko andere zen: bazakien zer nahi zuen, nola egin behar zuen, norekin zer harremanetan sartu edo ez sartu. Buru argia zuelakotz, gogoetak xuxen ibiltzen zituelakotz, eta askatasunaren kontzeptua edo asmua aski barnatua zuelakotz, be-

rak hautatu eginbideari esker bere bizia egin du. Bai zinez etxeko andere gure Mademoiselle Malharin.

47 urte erakasle! 16 urtetan hasi eta ez gelditu berrogoitazazpi urtez! Behar da ainitz maitatu hoinbertze urtez haurrekin egoiteko. Berak ez zuen haurrik, bainan zonbat maite izan ditu bere ikasleak! Zinez familia haundia ukan du edo hobeki erran, egin du.

Bi gauza nahi dituzt azpimarratu erakasle gisa:

- Bere ernetasunak, bere gogo bixiak eramaiten zuen bi bidetara: nahi zuen beti ikasi, beti gauza berriak aurkitu eta nahi zuen bere ikasleak ongi lanean har dituen.
- Lanean hasi zen, erakasle gisa Hazparnen, 16 urtetan, l'Asile ama eskolan. Gero joan zen Lekuinerat bi urtez, ondotik Mugererrat eta han egon zen 30 urtez, erakasle eta zuzendari. Azkenik, etorri zen San Josep ikastetxerat, Itsasurat, erretreta hartu arte 1975ean.

Erakaskuntza katolikoan erakasle izaiteko bokazioea zuen. Nahi zituen haurrak altxatu erraiten den bezala, bai jakintasunean, "Certificat de fin d'études" hori eskuratzeko, bai emaztetasuna eta gizontasuna ukaiteko. Erran zaharrak ibiltzen zituen bainan maite zuen metodo berrien ikastea eta baliatzea. Beti ikertzen ari zen nola hobeki erakutsi, nola errexxiago ikasarazi, zeren nahi zuen haur guziek kausi zezaten. Eta harek atxeman bideak pedagogia mailan bertze erakasleri zabaltzen zituen, erakaslen erakasle bihurtuz.

Musika, antzerkia, abestia, euskal dantza erabili ditu. Harentzat haur bakotxa norbait zen, emazte eta gizon bilakatuko zen bat, eta hortakotz emaiten zituen bere indar, bere nahikunde eta bere ahal guziak orenak kondatu gabe.

Gure ikastetxetan, Janamarik bi mintzaira ibili ditu. Frantsesa galdetzen zen bezala, eta euskara Euskaldunek ibiltzen zuten bezala, eta ibili behar duten bezala. Estimaten zuen, haurrak merexi duela errespetua, eta lehen errespetua orduan beren aitamen mintzairaren onartzea zen. Bigarren errespetua, Euskararen alde zuen, euskara ere ikasten den mintzaira bat dela, eta ikasten ikastetxean, ez bakarrik familian, etxean, ohorerik gabeko manera batean, iduriz ahalge. Ofizialtasuna emaiten zuen euskarari frantsesaren pare, biak ibiltzen eta ikasten zirela bere gelan. Zoin gehiagokak antolatu zituen euskarazko lanetan, haurren artean. Elebidun egiazki. Haren askatasunak

indar gaitza emaiten zion. Harek landatu hazia, sortu da gure erakaskuntza katolikoan eta gaur egun Euskal Haziak baditu 2000 haur elebidun geletan. Bai egiazki profeta zen Janamari Malharin.

Emazte etxeko andere, erakasle erakaskuntza katolikoan, girixtino. Girixtinotasunak eman ote dio Mademoiselle Malharin-i harek zuen askatasuna, indarra, zuzentasuna edo, hauek eta haren bizi moldeak egin ote dute Mademoiselle Malharin girixtino? Jainkoak badaki, bainan zinez Janamarik maite zuen Jainkoa eta nahi zuen ohoratu bai eta haren nahia egin.

Eskolatik landa, bere lana bururatu-eta, hartzen zuen bere bizikleta eta joaiten zen erien artatzera. Pikura egiten ikasi zuen, eta jendeak laguntzen zituen. Emazte ona zen. Bazakien gauzak partikatzen, emaiten beharretan zireneri. Berak ez zuen diru ainitzik zeren luzaz, 1960a arte, erakaskuntza katolikoko erakaslek hilabete saria arrunt ttikia zuten, bainan zuen gutti horrekin bazakien bertzeri emaiten.

Elizan girixtinoak laguntzen zituen organojoile gisa, eta bezperak euskaraz airoski kantatu ditu.

Bururatzeko gogoeta hau, edo hobeki erran begikeinu hau: mintzatu dituztan jendek erran daudate Mademoiselle Malharin zoin emazte zintzoa zen, eginbidea haren bizia zela eta sail hori hartu eta segitu du beti. Erran daudate ere, ez zela errex haren ondoan bizitzea, zeren zorrotza baitzen beretzat eta bertzentzat.

Sainduak ere holakoak ziren omen... eta hola ingurukoak dituzte sainduarazten.

Ene pena: ez naizela harekin lanean aritu.

KRITIKAK ETA
ERRESEINAK